

2016KO AZAROAREN 24AN UDALBATZAK EGINDAKO OSOKO BILKURA BEREZIAREN AKTA.-

BERTARATUAK:

LEHENDAKARIA:

Ibernalo Basterra Txasko and.

ZINEGOTZIAK:

Idoia Arenaza Sáenz del Burgo and.

Manuel Muñoz Morentin jn.

Eduardo Ruiz de Loizaga Sanz jn.

María Asun Quintana Uriarte and.

Susana Sáenz de Ugarte Corres and.

IHARDUNEKO IDAZKARIA: Miguel Ángel Olveira Barral; ekitaldiaren fede ematen du.

BERTARATU EZINA ADIERAZTEN DUTE:

Zuriñe Sáenz Sáenz and.

Mikel Herrador Iriarte jn.

Juanjo García de Acilu Pérez jn.

Santikurutze Kanpezun, Kanpezuko Udal Ohoretsuaren Udaletzeko Bilkura Aretoan, bi mila eta hamaseiko azaroaren 24a izanda, ordu biak eta zazpi zirela, goian esandako Zinegotziak lehen deialdian elkartu ziren Udalbatzaren osoko bilkura berezia egiteko Ibernalo Basterra Txasko Alkate andrearen lehendakaritzapean, lharduneko Idazkari bertan egonda.

Jarraian, apirilaren 2ko 7/1985 Erregimen Lokalaren Oinarriak arautzen dituen Legearen 46.2.C) artikuluan eta azaroaren 28ko 2568/1986 onetsitako Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 90. artikuluan zehaztutakoaren arabera, behar besteko quoruma egiaztatzeari ekin diote, eta batzordea eratutzat jo da. Ondoren, gai-zerrendako aztergaiak aztertzen hasi dira.

1.- UDAL ATERPETXEAREN BIRGAITZE LANEN LIZITAZIOA, EGOKIA BADA.

Santikurutze Kanpezu herrian, udal aterpetxea birgaitze lanak egiteko kontratazioa egiteko beharra ikusirik.

Lizitazioa zuzendu behar duten klausula administratiboen pleguak ikusirik.

3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bategineko 5 eta 19 artikulua ikusirik, baita oraingo espedientearen dokumentazioa, eta apirilaren 2ko 7/1985 Erregimen Lokalaren Oinarriak arautzen dituen Legearen eskumeneko 21.1.ñ) artikulua ezartzen dituen eskuduntzak ikusirik.

EZTABAIDA - PARTE-HARTZEA

Alkate andreak pleguen ezaugarri nagusiak azaldu ditu, eta irizpide sozialak gehitzeko aukera atertzen ari dela adierazi du, gehienez %30a arte. Aipaturiko neurriaren bideragarritasunaren gaineko txosten teknikoaren zain dago, ordea.

Quintana andreak jaso diren diru-laguntzei buruz galdetu du, eta Alkateak adierazi du Eusko Jaurlaritzako gazte-ekipamenduen bidez, 58 mila euro jaso direla, eta landa garapenaren behin betiko ebazpenaren faltan, aukera onak direla.

XEDAPENAK:

AKORDIOA: Bertaratuek aho batez onartu dute:.

LEHENA.- Santikurutze Kanpezuko herrian, udal aterpetxearen birgaitze lanen administrazio-baldintzen plegua onartzea.

BIGARRENA.- Esandako kontratazio-espeditentia onartzea (ohiko tramitazioa prozedura negoziatua publizitaterik gabe, proposamen abantailatsuen, zenbait hautaketa irizpide)

HIRUGARRENA.- Lizitazio-prozedura irekitzea, eta beharrezko kreditu-atxikipena egitea, kontu-hartzaitzari komunikatuz.

LAUGARRENA.- Udal web-orriko kontratatzailearen profilean argitaratu www.campezo.eus eta, gutxienez, gaitasuna duten 3 enpresa gonbidatu esandako obra egiteko.

BOSGARRENA.- Alkate andreak beharrezko agiriak sinatzeko ahalmena ematea.

2.- A-25EKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA ONARTZEA, EGOKIA BADA.

Nazio Batuen Batzar Nagusiak arazoaren 25a izendatu zuen emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna, eta, egun hori kontuan hartuta, bat egiten dugu emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeko eta horien aurka borrokatzeko 2011ko Europako Hitzarmeneko oinarriekin, 'Istanbuleko Hitzarmena' delakoarekin; izan ere, emakumeen aurkako indarkeriari buruzko Europako lehenengo tresna juridiko loteslea da, baita giza eskubideen urraketa larri horren aurrean irismen handiena duen nazioarteko ituna ere.

Bertan, estatuen ardurapeko eremu guztiak jorratzen dira: indarkeria prebenitzea, gizartea sentsibilizatzea (batez ere gizonak eta haurrak), erakundeen arteko koordinazioa sustatzea, erasotzaileen aurkako ekintza judizialak hastea eta biktimekiko babesa, laguntza eta kalte-ordaina bermatzea, erabili daitezkeen bitartekoen bidez.

Istanbuleko Hitzarmena 2014ko abuztuan berretsi zuen Espainiako Estatuak, eta, hartara, arau guztiz loteslea bilakatu zen, erakunde zentral eta autonomikoetan zein tokiko erakundeetan. Hitzarmena funtsezko tresna dela uste dugu, eta emakumeen aurkako indarkeria errotik ezabatu ahal izateko esparru gisa baliagarria da.

Horiek horrela, Istanbuleko Hitzarmena ezartzen dela bermatzeko, Kanpezuko Udalak konpromisoa hartzen du Hitzarmenean xedatutako neurrien kalitatezko estandarrak eta betearazpen-maila egiaztatzeko, baita gai horri loturiko nazioarteko, Estatuako eta Autonomia Erkidegoko beste arauetakoak ere.

Hona hemen neurri zehatz batzuk:

-Emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen esparrura eramatea.

-Emakumeen kontrako indarkeria mota desberdinak identifikatzea eta aurre egiteko dinamikak bultzatzea, normalizazioan ez erortzeko makro zein mikro-erasoak salatuz.

-Harreman intimoetako emakumeen aurkako indarkeria, adierazpen ugaritako indarkeria sexuala, emakumezkoen mutilazio genitala eta jazarpen sexista sartzea emakume eta neskatilen aurkako indarkeriaren kontzeptuaren barruan.

-Hitzarmena ezartzeko esparruan sartutako indarkeriaren modu guztiei buruzko gaien inguruko datu estatistiko datu xehe eta bereizleak jasotzea, tarte erregularren arabera.

-Generoaren ikuspegia eta diskriminazioaren debekua ezartzea, indarkeriaren esparruko printzipio nagusi gisa.

-Indarkeriari aurre egiten dioten emakumeei rol nagusia esleitzea programen ebaluazioan eta jarraipenean, eskubideen titular gisa.

-Emakumeen intimitate-eskubidea ezartzea arretako bide osoan.

Indarkeriaren aurkako haurren eskubideak berariaz aipatzea, batez ere, neskabilen eskubideak.

-Arretako langileen prestakuntza derrigorrez aitortzea, eta ez sentsibilizatorako ekintza soil gisa.

-Gizarteak emakumeen aurkako indarkeria prebenitzen eta borrokatzen laguntzea sustatzea. berdintasun politikak sustatuz eta eraso matxisten kontrako protokoloak indartuz edo martxan jarriz eta gizartearen erantzun soziala sustatuz.

-Erakundeen arteko koordinazioa bultzatu tokiko protokoloak martxan jarriz, arreta zerbitzuak hobetzeko eta indarkeriari aurre egiten dieten emakumeen birbiktimizazioa ekiditeko.

-Mugimendu feministarekin eta emakume elkarteekin elkarlana bultzatu.

-Gai honetan beharrezkoak diren neurrien finantzaketa bermatzeko mekanismo zehatzak ezartzea.

Bukatzeko, Kanpezuko Udalak bat egiten du azaroaren 25erako deituak izan diren mobilizazioekin eta jendarte osoari deia luzatzen dio parte har dezan.

Bozkatzera jarrita bertaratuek aho batez onartzen dute.

Era berean, Arenaza andreak, arloko zinegotzi ordezkariak, aipatu du bihar, hilak 25, arratsaldeko 17:00etan kultur-etxean zine-foruma izango dela, haur zaintza zerbitzua egongo delarik; eta arratsaldeko 20:00etan, udalerriko hainbat elkartek deitutako elkarretaratzea egingo dela, guztiak parte hartzera animatuz.

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez dagoenez, Alkate andreak bilkura amaitutzat eman du egun bereko ordu biak eta hogeita bostean. Nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.